



## ENPRESA LAGUNTZAILEEN PROGRAMA VITORIA-GASTEIZKO INGENIARITZA ESKOLA

Elkarren arteko lankidetzak akademikoak indartzeko eta egituratzeko diseinatutako ekimen estrategikoa, unibertsitateko prestakuntza gure inguruko industria, teknologia eta erakunde sarearen benetako erronkekin uztartzen duena.

### | HELBURU ESTRATEGIKOAK

- ..... **Unibertsitatea-Enpresa lotura**  
Komunikaziorako eta truketarako bide egonkorra finkatzea eskolaren eta enpresaren artean.
- ..... **Jakintzaren transferentzia**  
Aurrerapen akademikoek enpresa lehiakortasunean zuzeneko inpaktua izan dezaten ahalbidetzea.
- ..... **Talentuaren garapena**  
Benetako erronketara bideratutako prestakuntza praktikoa sustatzea eta enplegarritasuna bultzatzea.
- ..... **Aliantzen bilakaera**  
Sinergia sendoak identifikatzea etorkizunean Unibertsitate-Enpresa Ikasgelak garatzeko.

### | LANKIDETZA AKADEMIKO MOTAK

Programak esparru malgu bat eskaintzen du, enpresa bakoitzari inplikazio maila moldatzeko aukera ematen diona, urteko jardura ugariren bidez:

- ..... **Praktika Akademikoak**  
Curriculumeko praktikak eta curriculumetik kanpoko praktikak egiten ari diren ikasleen harrera, proiektuak garatzeko eta benetako lan inguruneetan ikasteko.
- ..... **Gratu eta Master Amaierako Lanak (GrAL/MAL)**  
Enpresako optimizazio premia edo erronka espezifikoak ebaztearekin lotutako gradu/master amaierako lanen proposamena eta baterako zuzendaritza.
- ..... **Irakaskuntza espezializatua eta Mintegi Teknikoak**  
Sektoreko profesionalen parte hartzea gonbidatutako hizlari moduan transferentzia teknologikora bideratutako hitzaldietan, eskola magistraletan edo mintegietan.
- ..... **Lanbide orientazioa eta Sariak**  
Inplikazioa enplegu foroetan eta ikasleen ikerketaren bikaintasuna aitortzera bideratutako sari espezifikoak sortzeko aukera.
- ..... **Lan ingurunearekiko lotura**  
Ikasleak enpresarekin duen harremana, bere potentziala garatzeko eta etorkizuna sortzeko berrikuntza ingurune bat aurki dezan.

## | ALOR TEKNOLOGIKO ESPEZIALIZATUAK

Ingeniaritza modernoko eta sortzen ari diren teknologien funtsezko bektoreen inguruko lankidetzak bultzatzen da nagusiki.

### | Jardun lerroak

- ..... Adimen Artifiziala eta Industria Adimenduna .....
- ..... Digitalizazioa eta fabrikazio aurreratua .....
- ..... Trantsizio energetikoa eta jasangarritasuna .....
- ..... Konektatutako logistika eta hornidura kate adimenduna .....
- ..... Abangoardia teknologikoa eta proiektu pilotua .....

### | Aplikazio eremuak

- Prozesuen optimizazioa denbora errealean, datu analitika eta automatizazio aurreratua
- Biki digitalak, sistema ziberfisikoak eta abangoardiako manufaktura teknologiak
- Energia efizientzia industrial, deskarbonizazioa eta ingurumen aztarnaren murrizketa
- 5G/6G sareen integrazioa eta sentsorizazioa, inbentario prediktiboaren kudeaketa eta garraio industrialaren automatizazioa
- Bilakaeran dauden industria joera eta diziplina berriak ikertzea, baliozkotzea eta txertatzea

### | URTEKO LANKIDETZA ESPARRUA: EKARPENA ETA FORMALIZATZEA

Programako lankidetzak urteko akordio bidez formalizatzen dira, urteko ekarpen ekonomiko batean oinarrituta (gutxienez 1.000 euro/urte). Programa instituzional honekin zuzenean lotutako jarduerak akademikoak bultzatzera, babestera eta garatzera bideratuta dago ekarpen hori.

### | ENPRESA LAGUNTZAILE GISA AITORTZEA

Vitoria-Gasteizko Ingeniaritza Eskolak aitortzen die **hitzarmena sinatu eta urteko eginkizun plana** definitzen duten erakundeak. Esparru eskalagarri horrek, epe ertainera, irismen handiagoko harremanak finkatzeko oinarri egokiak ezartzeko aukera ematen du, hala nola **EHUko Unibertsitatea-Enpresa Ikasgelak**.



Xehetasun gehiago nahi izanez gero, hitzarmenak formalizatzeko eta jarduerak proposatzeko:

[Enpresa Laguntzaileen Programa - Vitoria-Gasteizko Ingeniaritza Eskola - EHU](#)